

-1984-

### **Data zehatzik gabe**

Ene literatura ez da munduaren kontrako kolpean isurtzen zaidan odola baino.

\* \* \*

Bi hitz, agian lau, behar balira, zazpi..., baina inoiz ere ez hamalau baino gehiago.

\* \* \*

Damutu al zaio inori bere buruaz beste egin izana?

\* \* \*

### Zuruie askaioutasunaigaiatiuk

*Joixieaien Airtziueren poieuma  
biustuiuta, askaioutasunieiaian blai*

Zuruie askaioutasunaigaiatiuk buirjuirtatzien baruinauz  
kantruastzeiun badiult,  
eiz diouit maiteoi zaiotzieiudalkilaiko kantruastzeiun.  
Eiz eutoia zuruie maulkouiak xiukartzeiagaxtiuk.  
Zourbiountsui laiboero bieihar zaietudueielaiko buaziuk,  
zuruie askaioutasunieiaian, zuruie zourbiountasunaieian,  
neaurieia ikuistiein diuldaielaiaiko.

### **1984ko abenduak 24**

#### Inkesta

Euskal Telebistakoak kalean inkesta bat egiten ari dira. Erosketak egiten ari den etxekoandrea geldiarazi dute kamera aurrean.

–Eta zuk zein hizkuntzatan prantatzen dituzu otorduak: euskaraz ala erdaraz?

–Latinez, senarra apeza dut eta.

-1985-

## **1985eko urtarrilak 2**

“Ezagutu hindudan. Maitemindu gintunan. Musukatu. Elkar maite. Larrua jo. Jota geratu arte. Ito hindudan. Zigarro bat bezala erre hindudan. Eta zer?”

## **1985eko otsailak 26**

### Aldizkariko marrazkiak irakurleari

1

Kaixo, adiskide. Eskerrik asko nigan erreparatzeagatik. Asko poztu ohi nau, bai, jendeak nigan erreparatzeak. Benetan. Izan ere, ni lehen ez nintzen ezer, ez nintzen existitu ere egiten. Nire egileak sortu ninduen arte; eta sortzeaz gain, baita aldizkaritxo maitagarri honen barnean argitara eman ere. Eta oso pozik bizi naiz, bai, batez ere, zuk bezala, inor nire orri hau zabaldu eta begira hasten zaidanean. Egia da gero denek, zeuk zerorrek egingo duzun bezala, orria pasa eta aldizkari itxiaren barneko ilunpean uzten nautela, baina badakit noiz edo noiz nitaz oroitu eta gogoan izango nautela, zeuk zerorrek ere gogoan izango bide nauten bezala; oinetakoen lokarriak lotzerakoan, autobus batean sartzerakoan, erlojua begiratzerakoan... Biziki pozten nau hori pentsatzeak, eta gainera beti dut, halaber, ikusle berri baten etengabeko itzaropena... Bai, oso pozik sentitzen naiz, polita da benetan bizitzea.

2

Tira, tira, pasa ezazue orria, demontre! Ezin al nautzue bakean utzi? Ez al duzue ezer hoberik egiteko? Nire egile maltzur hori harrapatuko banu...! Tira, ni sortzea uler daiteke, baina gero, zakarrontzira bota edo erre beharrean, hara nondik aldizkari zikin nazkagarri honetan argitaratzen nauen. Lotsagabe alena! Eta zuek berriz hor zabiltzate, bata bestearen atzetik, beste zereginik gabe niri so, ez dakit zer banintz bezala... Utz nazazue behingoz aldizkari itxiaren bakean, eta ahaztu nitaz betiko, sekula sekulorun. Zoazte pikutara! Utikan, arraioa!

## **1985eko martxoak 10**

Umea negarrez ari da  
igandea delako;  
zenbat motibo dauden  
negar egiteko!

## **1985eko maiatzak 7**

“Denboraz baliatzea? Ez dago horrelakorik, hori ezinezkoa da. Bizitzea denbora alferrik galtzea da.”

## **1985eko abuztuak 8**

### Gozotasuna

Bilera tirabiratsua izaten ari da, beroa, istilutsua. Arazo gaitz bat konpontzerakoan erabiltzen diren tonuak: oihuak, errietak. Dena baretu denean, solas lasaian lotu gara O. eta biok atariko aulki batean eserita.

–Alde ederreko lasaitasuna diagu hemen orain –komentatu diot O.ri.

–Bai, baina ni txiskeroarekin inurriak erretzen ari nauk.

–Tira –erantzun diot–, hori ere ekintza gozoa duk.

Bare-bare kiskaltzen dira inurriak.

### **1985eko irailak 3**

Ilargi betea, bihotz hutsak.

### **1985eko irailak 12**

Asteburuan autorik gehienak maitasunak mugitzen dituela esango nuke. Gezurra litzateke.

### **1985eko urriak 4**

Uhainek ez digute jaramonik egiten. Berdin aritzen dira gauez zein egunez, jendea ikustera hurbildu ala ez. Ezta itsasnesken gorabeheran ere ez dira aldatzen. Bitsa itsua da eta mutua.

Uhainak ikusten izan gara eta ez bageunde bezala segitu dute beren bizimodu eternal hori. Itsasoa, edertasun amaigabea, ez da bere edertasunaren jakinaren gainean. Edo ez dirudi behintzat.

### **1985eko abenduak 12**

#### Neska zatarra

Zer edo zer idazteko eskatu didate zuentzat. Ez da lan erraza, ez pentsa. Nik berez, eskuarki, ez dudala ezer esatekorik sentitzen dut. Orduan isilik geratzen naiz eta barnetik hitzak etortzen hasten zaizkit; jariora jasotzen dut, gainbegiratu, txukundu, ordenatu eta gero idatzi egiten dut azkenik. Bestela isilik egoten naiz, inork zer edo zer idazteko eskatzen ez badit behintzat. Oraingoan gertatu den bezala.

Zuek gehienok gazteak zarete eta kalera irteten zarete pote batzuk hartzera, porroak erretzera, ligatzera (neskatan zein mutiletan egitera, alegia). Eta abar. Eta denok ezagutuko duzue neska zatarren bat edo beste, seguru. Bada nik neska zatar baten ipuina kontatuko dizuet, horixe baita burura etorri zaidan gaia.

Goizeko zortziak dira. Asteartea. Eurria ari du. Neska zatarra, egunero bezala, autobusaren zain dago, goardasolpean, karpeta eta liburuak besapean. Zuzenbide fakultateko ikaslea da, esate baterako. Ikasle ona da, etsaminaren aurretik ordu pila ikaragarriak aulkitik altxatzeke pasatzen dituzten horietakoa. Esamin garaietan ez du asteburuetan kalera irteteko ohiturarik. Gainerakoan ere apenas askotan irteten den.

Autobusa heltzen denean, barrura doa. Autobusean dago gure neskek sekretuan maite duen mutila ere. Mutila beste neska batekin hizketan ari da autobusaren atzekaldeko aulkietan eserita, neska eder batekin, jakina. Gure neska bakarrik esertzen da aurreko aulki batean. Irudikatzen hasten da bere ametsetako mutila etorri eta alboan esertzen zaiola, eta gero eguna elkarrekin pasatzen dutela eskolara joan gabe.

Baina gero mutila autobusetik nola jaisten den ikusten du, bere neska lagunarekin batera. Fakultateraino bidean neska zatarra oso triste doa. Etorkizunean pentsatzen hasten da. Neskazahar bakartia izan behar ote du? Abokatu triste samindua? Sikiera ofizioa benetan gustukoa balu...!

Ipuin honek ez du amaierarik. Nik, besterik gabe, koadro hau erakutsi nahi izan dizuet, goizeko autobusean doan neska zatarraren tristurarena, alegia. Hortik aurrera, hor konpon zeuek! Ariketa ugari asma ditzakezue. Honako hauek, esate baterako:

a) marraztu ezazu neska zatarra euripean dabilen autobusaren barruan, bakar-bakarrik.

b) asma ezazu ipuin bat neska zatarra protagonista dela.

c) galde egiozu zeure buruari ea zein diren neska zatarraren eta zeure artean dauden antzak eta aldeak.

d) har ezazu autobus bat goizeko zortzietan, euripean, bakar-bakarrik, eta irudika ezazu zeu zarela neska zatarra.

e) idatz iezaiozu gutun bat neska zatarrari, zeure iritziak azalduz.

f) esaiozu neska zatarrari ea zurekin zinemara joan nahi al duen datorren igandean.

g) antola ezazu *Neska zatarraren omenezko hamabostaldia*.

### **1985eko abenduak 15**

Hainbeste dago gorrotatzeko, hala urrutira begira nola mutur aurrean, indarge sentitzen naiz horri guztiari gorrotoz ekiteko. Gorrotoen bereiztea, berriz, gorrotoen sailkatzea eta hierarkizatzea, lan gaiztoa iruditzen zait, bidegabekoa, faltsua, zatarra.

### **1985eko abenduak 21**

#### Inork ere ez

“Inork ez du horrelakorik egiten”, esan zidaten. Eta zaila ez zen, lan handia zen, baina edonork egiteko modukoa. Ez zen logikoa, ez zuen zentzurik. Nik, ordea, egin egin nuen eta orain denek miretsi egiten naute, denak neure menpe ditut.

## 1986ko urtarrilak 5

### Irukurutzetatik

Irukurutzetatik ederki ikusten da Azkoitia. Loiola gorago azaltzen da eta Azpeitia urrun samar geratzen da ikusmenarentzat.

Otalore hauen ondotik, 895 metroko goieran, hor behean neure menpe dut neure jaioterria. Hor daude nire erkideak, Azkoiti barruan, eta hemendik herriak, udalak, Azkoitiak nola estutzen dituen ikusten dut, nola itotzen dituen. Arrainak dira arrainontzi handi baten barruan.

Kale horietan, hemendik hain garbi ikusten den kanpandorrearen ondoko kaleetan zenbait gazte dabil arratsaldea nola pasa asmatzen, egunero bezala. Betikoak dira, elkar ondo ezagutzen dute; eta nik ere ezagutzen ditut, bai. Kostoa duena ia-ia pertsonaia bat da. Zubillagako lantegian erdaldun zahar ugari ari da fundizioan lanean, ikastolan euskal umeak eskolan... Santa Krutzeko bidean Zaharren Egoitza dago, eta han mojek apopilo mozkorrei errieta egiten diete. Esate baterako, adibidez.

Hemendik herria begiratu eta pena ematen du. Hemendik ikusten da beste inondik baino hobeto herri horretan ezin daitekeela inoiz ezer ere gertatu. Ezer ere ez. Hemen horren guztiaren gainetik sentitzen dut neure burua, “solasaldi ooren gainetik”, nire lagun idazle batek esango lukeen bezala. Nire herriak pena ematen dit, negargarria iruditzen zait. Irukurutzetatik antzematen zaio beste inondik baino hobeto zein gauza absurdua den Azkoitiko alkatea izatea. Adibidez, esate baterako.

Irukurutzetatik aurrera bideak Atxolin eta Karakate aldera segitzen du... “Ihurk elezakezu pentsa nik zer dutan goguan...”

## 1986ko otsailak 28

### Miresle ezezaguna

Artikuluxka bat idazteko esan zidaten aldizkari honetarako. Orain artikuluxka idatziko dinat, gero idazmakinez pasatu txukun-txukun, eta ondoren dagokion lagunari pasatuko zionat, hark dagokion lekura eramanez, azkenean, artikuluxka aldizkarian atera dadin.

Eta artikulua aldizkarian aterako dituen, eta hik eskuratu egingo duna aldizkariaren zenbaki berria, aurrekoak ere eskuratu izan ditun bezalaxe. Eta azpian nire izenarekin sinatutako artikulua bila hasiko haiz, eta bai aurkitu ere, “Miresle ezezaguna” izenburupean. Eta urduri irakurriko duna, eta gero lasaixeago berrirakurri. Ondoren, hausnartu egingo duna irakurri berri dunana. Eta geroxeago hirugarren aldiz irakurriko duna. Azkenean, aldizkaria gorde egingo duna kaxoi baten sakontasunean. Hurrengo, kalean ikusiko naun, eta ez zionagu diosalarik egingo elkarri, beti bezala. Agian ni ezagutu ere ez naun egingo eta.

Eta urte askoren buruan, paper zaharren artean begira, aldizkari hau aurkitu eta dardaraz irakurriko duna, hunkituta, orain idazten ari naizen “Miresle ezezaguna” izenburuko artikuluxka labur hau.

Seme edo alaba gaztea eskolara joango duna, eta agian aldizkaria eramango din, lagunei erakusteko bitxikeria polita delakoan.

Hi heure aurpegiari begira geratuko haiz ispilu aurrean, eta zalantzan izango haiz ea zer egin dezakenan bihotz barruko zirrara bortitzari erantzuteko:

- a) ispilua txikitu, egongelako armairutik pattar botila atera eta hari ekin mozkortu arte.
  - b) porro bat egin eta erre.
  - c) leihora irten, biluzik gerritik gora, titiak bistan ditunala.
  - d) senarraren zain egon, harekin hitz egiteak lasaitu egingo hauekikoan, zeren, azken-azkenean, oraindik ere elkar maite baituzue.
  - e) udaberriari buruzko idazketa ariketa bat egin.
  - f) margolan abstraktu bat pintatu.
  - g) poema bat idatzi, poema ilun eta tristea.
  - h) ezer ez.
- Akaso. Beharbada. Ez dun segurua.

#### **1986ko martxoak 4**

XX. mendeko mendebaldar artista guztiak berdinak dira: ez dituzte beren maitaideak maite.

#### **1986ko abuztuak 20**

*Driving fast, walking slow.* Poesiarentzat bizi, poesiarentzako izan. Gasolina eta autoa konpontzeko garajeak; lanbroa eta arrosak.

#### **1986ko irailak 5**

Poesia gehiagotasun sentimendua da. Gehiagotasun sentimenduan oinarritu ohi da behintzat gehienetan.

Horregatik poesiarik gehientsuena tristea izan ohi da. Alai eta zoriontsu dagoenak ez du bere burua goresteko premiari. Aitzitik, triste dagoena kontsolatzeko oso baliabide erabilkorra da gehiagotasun sentimendua. Batik bat tristurak bakardadearekin zerikusirik izanez gero.

Hortaz, triste dagoenak bere burua neurtu eta beste ororen gainetik kokatzen duenean poesia egiteko prest dagoela esan dezakegu.

#### **1986ko urriak 7**

Bizi egin behar da, hurkoari lekua kendu egin behar zaio, hurkoa nekarazi eta gogaitarazi beharra dago. Ez dago beste erremediorik bakardade txiroa eta suizidioa ez badira.

#### **1986ko urriak 30**

Bolantedun makina elektroniko batean jolasten ari naiz. Autoak aurrera egin ahala, paisaia berriak ageri dira pantailan. Saiatzen naiz ahalik eta urrunen joaten istripurik gabe, baina ezin dut bazterra edo aurretik datorren autoren bat jotzea saihestu. Makina itzaltzen zait ondorioz. Txanpona sartzen dut berriro. Inondik ahal dela, aurrera segitu nahi dut amaitu arte, paraje guztiak ezagutu arte.

\* \* \*

Ximeltzen ez diren loreak plastikozkoak dira.

### **1986ko azaroak 1**

Poema onak badira  
lau lerro soilekoak.  
Honako hau ez dut uste  
horietakoa denik.

\* \* \*

–Gustura bizi al haiz?  
–Ahaleginak egiten ditiagu behintzat.  
–Nik ezta hori ere. Horixe duk kezkatzen nauena.

### **1986ko abenduak 24**

Gero eta “hobeto” idazten da, harik eta norberaren lanak onenentzat jotzen dituen arte egileak berak bere ustetarako, bere gusturako. “Neure gusturako”, esan behar du idazleak orduan, “oso jende gutxik idazten du nik bezala, nik bezain ‘ongi’ alegia.”

### **1987ko urtarrilak 7**

Idazlea irakurlea da. Aritu eta aritu ondoren bere gogoan ase lezakeen irakurketarik ezin aurkituta, berak idaztea erabakitzen du. Horregatik idazleari berak idatzitako obra gustatzen zaio gehien. (Ikus 1986-XII-24.)

### **1987ko martxoak 14**

Zuzenak eta egokiak ahaztu, ondo esanak barkatu. Okerrekoak eta gaizki esanak gogoan hartu, iraingarri eta mingarrienak batez ere.

### **1987ko martxoak 25**

Liburu batean urak ez kolorerik ez usainik ez zaporerik ez duela irakurri nuenean harritu egin nintzen. Ez nintzen horretaz ohartua ordura artean.

### **1987ko martxoak 30**

–Nik ez ditut galtzak zuek hala esaten duzuelako aldatuko. Arrazoiak eman beharko dizkidazue. “Kolore zatarra dutelako” esaten badidazue ez dizuet kasurik egingo. “Puskatuta daudelako” esaten badidazue, orduan bai.

–Ez ba. “Puskatuta daudelako” esanda ere, ez zenituzke aldatu behar. Zer dugu ba puskatutako galtzen aurka?

### **1987ko apirilak 16**

Adiskide bati jaso: “Kalera irten eta lagunekin ibiltzen nauk. Dakizkidan guztiak kontatzen ditiat eta biharamunean eztarria itxita.”

### **1987ko apirilak 25**

Nire erlijioa literatura da. Fede handirik ere ez dut baina ongi sentiarazten nau sinestun zintzoaren lanak egoki betetzeak. (Ikus 1986-XII-24 eta 1987-I-7.)

### **1987ko maiatzak 2**

*Das Gewicht der Welt* (“Munduaren zama”) izeneko bere egunkarian, Peter Handkek bere burua desalienatu nahi du, eta horretarako beste era bat bilatzen du kontuak esateko; edo areago: beste era bateko kontuak esaten ditu. Eta liburua irakurtzen hasten garenean Handkeren hizkeran ari garela irakurtzen ohartzen gara. Ez da elkarrizketa bat. Erakusketa bat da.

Handke kanpoko hizkerako egien azpian aritzen da bila, kanpoko hizkerako egia horiek gezurra direla jakinaren gainean; oztopoak kendu eta barruan zer duen bilatzen hasten da. Beharbada hor barruan aurkitzen duenak ez du interes handirik guretzat beti, baina ederra da oztopoak nola kentzen dituen ikustea (desalienazio prozesua). Norberaren oztopoak kentzen hasteko gogoak ematen ditu.

### **1987ko ekainak 13**



Ene bihotza ez dun inoiz hirea izanen:

a) beharrezkoa dudalako neuk.

b) nahi izanez gero ere, ezin atera ahal izanen nukeelako; ez lidaketenan utziko ahal izanda ere.

c) metafora hori higuingarria zaidalako, hainbestetan dinat entzuna.

### **1987ko ekainak 29**

Ez dago apaltasunik. Beldurra da.

### **1987ko uztailak 2**

Idazten ez dudan poesia guztia eskaini ahal izateko lagun baten premia.

### **1987ko abuztuak 2**

Mozkorrak beti, idazleak bezala, bizitza gezur handi bat dela eta horrelakoak esaten ari dira.

### **1987ko abuztuak 18**

Mutil gazte bati oharkabeen entzuna, Azkoitiko jai nagusietako azken gaua pasata, jada goizaldean: “Bai, bukatu dituk aurtengo festak ere, eta ez zioagu inori ere igo.”

### **1987ko abuztuak 22**

Nondik nora irten da agure hori korrika bizi eta traketsean geltoki aurrean? Nire aurretik pasa da. Begira geratu natzaio, gaur ikusi dudan gauzarik ederrena izan dela jakin gabe geltokiko aretoan sartu den arte.

### **1987ko abuztuak 23**

Ebaki txiki bat egin dut ezkerreko eri erakuslean. Min handirik ez. Zaindu egin behar pixka bat. Denborapasa ederra. Ur oxigenatua, merkromina, eta esparadrapua zenbait eginkizunetarako. Eta egun batzuetan atzamarra diferente ikusten da.

### **1987ko abuztuak 31**

Marilyn Monroek esana: “Ez zait dirua interesatzen. Liluragarria izan nahi dut, besterik gabe.” Niri ere ez. Nik ere bai. (Ikus 1986-XII-24, 1987-I-7 eta 1987-IV-25.)

### **1987ko irailak 1**

#### Sinekdoke

Umea nintzen. Eskaileretan behera nindoala, goruntz zetorren neska gazte betaurrekodun batekin topo egin nuen. Neska egunkaria irakurtzen zetorren eskaileretan gora.

–Kaixo, Egunkari –esan nion irribarrez.

–Kaixo, Sinekdoke –erantzun zidan.

Harrituta kontatu nien lagunei. Harrezkero Sinekdoke deitzen didate. Eta oso pozik nago izenarekin. Gainera, badakit neska hura, nolabait, egunkari bat zela; eta neu ere, nolabait, sinkedoke bat naizela. Kontua pixka bat pentsatzea besterik ez da.

\* \* \*

Idazleak pentsatu eta idatzi egin zuen hura. Argitaratu egin zuen lana. Orain ez da guztiz ados idatzi zuenarekin, ez beti behintzat. Hura behin pentsatu eta idatzi zuen. Orain, tarteka-tarteka, zenbaitetan ere bat dator idatzi zuenarekin, baina oso gutxitan. (Horrek “garbi” erakusten du idatzi zuen hura ez zela ez egia ez gezurra, ez ona ez txarra, ez zuzena ez okerra.)

### **1987ko irailak 6**

Emakumearen eskuzabaltasunaren froga dira titiak: beti besterentzat ditu emakumeak titiak. Gizonak ez du ezer horrelakorik. Argudio hau emakumeen alde hitz egiteko erabil daiteke. Baina baita aurka hitz egiteko ere.

### **1987ko irailak 12**

Idazleak ez du atsekabean negarrik egiten. Ohitua dago adierazpen bortitzagoetara. Badaki bere negarra irrigarrikeria hutsa zatekeela. Soilik malenkoniak egin dezake negar, malkoen jariora kontrolatzeko gauza izatera heltzen den une horietan.

### **1987ko irailak 15**

#### Trial of explanation

I hear the radio and I watch TV, I read newspapers, poems, romances, I go to the cinema, I walk in museums... I do all that, I go to sleep, I rest lonely with myself and I feel I am a good guy, a boy who is doing what he must, and it's beautiful this sensation of happiness. But sometimes I stay with my friends, boys and girls, and I see they don't care for me. If I were a stupid boy I could understand it. I sometimes feel broken for that. But it's so easy to understand. They don't care for me just because I don't care for them, I really cannot care for them. There's no communication, there's no friendship at last. They are, most of them, good boys and girls, and they have done really good things for me when I have needed it, or, simply, when they have got an opportunity. But really most of the time they have not that kind of opportunity, and me too to do the same with them. And our lives they pass so apart the ones from the others, and it seems they have not any remedy.

When I am lonely —with myself, like I did say before— I think friendship is possible, is normal, is necessary. And this sensation grows when I am with the radio, the TV, the newspapers, a book, a movie... And if I really like the book or the movie, the feeling of joy grows so much that I sometimes get really excited, I think things can get so easy and I feel so near of the revolution of ideas on my mind. And I really have got some ideas that I think they are good ideas. But those ideas never could get any solution to the problem I have mentioned before.

The matter is that I usually get communication with works of artists that I like, easier than with people I talk with, with people of flesh and bones.

I think the problem I have exposed does not belong only to me. I think there are so many people—even between my friends— having the same problem, feeling the same feelings, which are really difficult to understand, and so to explain. I have tried it during the writing of this text.

### **1987ko urriak 1**

Lautreamont-eko Kontearen *Les chants de Maldoror*: ni surrealisten garaikoa izan banintz, harrapatuko bide nindukeen. Baina irakurri dut eta ez nau harrapatu. Gustatu zait, baina ez nau liluratu. Garaitua sentitu dut. Gaur egungo fanzine traketsetako hainbat testu asko zatekeen, besterik gabe bada ere, horretarako, eta hori eta gehiago irakurria naiz. Apollinaire-n *Les onze mille vergues* antzeko adibidea genuke beharbada. Ez didate laguntzen sentimendu berrien bila, Handke-k eta beste gutxi batzuek laguntzen didaten bezala. Horrela konturatzen da bat literaturak ere bere historia duela.

### **1987ko azaroak 4**

Besterik ez balego ere, beti ditugu bi gauza: ibiltzea eta irakurtzea; amaierarik gabeko bi ekintza.

### **1987ko azaroak 7**

Idazle izatea idazle bizitza da. Nik idazle izatea egoismo beldurgarri batekin bizi dut. (Ikus 1986-XII-24, 1987-I-7, 1987-IV-25 eta 1987-VIII-31.)

### **1987ko azaroak 9**

Oso atseginak zaizkit makal hasten diren kantuek. Oso maina erraza da. Eserleku bigun baten gainean esertzen gara makal hasten den kantu bat entzuten, lasaitu egiten gara, ezertan pentsatu gabe... Baina alferrik da. Are zortzi ordu pasako loak ere ezin izaten dio gero eta handiago sentitzen dugun nekeari atsedetik eman.

### **1987ko azaroak 14**

Oso atseginak zaizkit inor, inoiz, inon eta inola hitzak (Ikus 1985-XII-21.)

### **1987ko azaroak 17**

Ume nintzela, gizon bat ikusi nuen taberna batean, bakarrik, bi arrautza frijitu afaltzen, ez naiz gogoratzen zerekin, txorixo mutur batekin akaso. Oso tristea iruditu zitzaidan orduan egunero taberna batean eta bakar-bakarrik afaldu behar izatea. Horrelakorik ezin egin izango nuela iruditzen zitzaidan. Gaur egun, aitzitik, ez nioke batere beldurrik egunero taberna batean bakar-bakarrik afaldu behar izateari, ezta hurrik eman ere. Arazo honetan, beste askotan bezala, bira eman diot arrautzopilari baina bestaldea ere ez da nik uste nuen bezalakoa, lehengo aldearen oso antzekoa baizik. Beldur berririk ez dela inoiz falta izaten, alegia.

### **1987ko azaroak 23**

Une batzuetan literatura baino haratagoko zerbait lortu behar dudala iruditzen zait, liluraren liluraz haratago eta haratago, gorago eta gorago, baina inora ere iritsi gabe inoiz. Eta laster literaturara jaisten naiz berriz. Hori da segurtasuna galdu gabe, zorabiorik gabe, zapal dezakedan eremurik garaiena. (Ikus 1986-XII-24, 1987-I-7, 1987-IV-25, 1987-VIII-31 eta 1987-XI-7.)

### **1987ko azaroak 26**

Umeak umekeria bategatik negar egin dezake. Nagusiak umea negarrez jarri ondoren aitzakia hori du. Baina aitzakia hori ez da bidezkoa. Kontua ez al da ba denok ahalik eta negarrik gutxiena egitea? Umekeria bategatik negar egiten duen umeak, ez al du motibo serio bategatik nahigabetutako nagusiak adina sufritzen ala?

### **1987ko abenduak 3**

Ideiak bururatzen zaizkigunean, nondik datozkigu burura? Nondik? Burutik sano ez daudenak, non dabilta, gertuago ala urrutiago leku ezezagun horretatik? Beste nonbait daudela iruditzen baitzait, ezagutzea mereziko lukeen leku batean; areago, bizi garena edo bizi duguna baino benetakoagoa den leku batean. “Arrazoia” dutela iruditzen zait batzuetan eta gu haien aldean ezer ere ez dakigun kokoloak garela.

### **1987ko abenduak 5**

Gertaera, irazkia, aitzakia hutsa besterik ez da. Ez bakarrik gaur egungo eleberri modernoetan, edozein eleberritan, beti.

### **1987ko abenduak 6**

Atzo goizean behaztopo egin eta hartxintzar artean erori nintzen. Hankan zauri txiki batzuk egin nituen. Ez ninduen inork ikusi. Jaiki eta neure bidea segitu nuen, inguruetara lehenengo eta hanka aldera gero begiratu ondoren. Zauriak handiak ez direnez, ez diot inori ezer kontatu. Hankak galtzapean ditudalarik, ez dit inork ezer galdetuko. Nitaz aparte, beraz, inork ez du inoiz nik atzo izandako istripu txikiaren berri izango. Hortaz, zertarako erori nintzen?

### **1987ko abenduak 10**

Egundoko izua sortzen du ni baitan denbora alferrik galtzen ari naizela pentsatzeak. Baina, hortaz, zer da niretzat denbora alferrik galtzen ez uztea, denboraz behar bezala baliatzea? Dirua irabaztea batzuetan, nire idazteko lanari mesede egitea besteetan. Ondo pasatzea edota adiskide bati laguntzea ere bai inoiz, baina gutxiagotan eta beste modu batez, modu hits eta motelagoan. Dirua ere, berez, azken-azkenean, idazketa lanak hobetzeko denbora erosteko behar izaten dudala esan daiteke.

Gogoeta honen ondorioak aurretik nituen idatziak koaderno honetan: “Nire erlijioa literatura da. Fede handirik ere ez dut baina ongi sentiarazten nau sinestun zintzoaren lanak egoki betetzeak.” (1987-IV-25) “Idazle izatea idazle bizitzea da. Nik idazle izatea egoismo beldurgarri batekin bizi dut.” (1987-XI-7) (Ikus, baita ere, 1986-XII-24, 1987-I-7, 1987-VIII-31 eta 1987-XI-23.)

### **1987ko abenduak 11**

Gazteok gauza handiak egin nahi ditugu baina inor gutxik egiten ditu. Zergatik. Ordea, gauza handiak egiteko premia hori? Nik aspaldidanik dut gogoari itsatsia, nahiz eta jakinaren gainean egon ez dagoela premia benetan asetuko duen handitasunik.

### **1987ko abenduak 13**

Errebeldiarik gabeko alaitasun eta pozkario debaldekoari lotsagarria deritzot. Horrelakoak ikusten ditudanean neure ingurutik urrun sentitzen naiz, eta bakarrik, oinez ni aldameneko ergelak autoan doazen bitartean.

### **1988ko urtarrilak 2**

Argazkian ageri den atetik zehar abiatzeko gogo. Adibide bat, besterik ez, baina zer da dena ere adibidea baino?

\* \* \*

Enkargu guztiak izaten ditut gogoan eta, bitartean, bizitzea ahazten zait. Egoki Joy eta Tristian Sakon, hiritar arrunta eta poeta tristea enkarguak egiten hirietan.

\* \* \*

Bizitza nekez gordetzen dugun oreka da.

### **1988ko urtarrilak 6**

Neska gazte ederrak begien bistan, begirada gozoa eztizko promesez edertua. Neska gazte ederrak, gozokiak jaten tristaturik, mutilik gabe, igande arratsaldean, neska gazteak inori atsegirik ezin eman diezaieketen mutilen besoei helduta, neska gazteak bizitzaz etsiturik eta beren buruak hiltzen nire sorbaldara etorri gabe negar egitera, etsipenaren bidetik barreneko bidaiaren itxaropena ere galduta. Maitasuna, amodioa, film bat da, amodiozkoa. Hain izaten da inoiz benetakoa, ia-ia sinetsi ere egiten dugu.

### **1988ko urtarrilak 12**

Taberna batean gosalduta eta egunkaria irakurtzen lanera joan aurretik goizeko zazpietan. Bezero asko dago, denak neu bezala, gosalduta eta egunkaria irakurtzen, neuk dudana egunkari bera gainera. "Izango duk orijinala izateko denbora ere", esaten diot neure buruari.

### **1988ko urtarrilak 13**

Idazle baten lana irakurtzearen eta idazle batekin hitz egitearen artean bada, bai, alde ederra. Idazleak idatzitakoa irakurtzeak ideia berriak bultzatzen dituzakeela ni baitan deritzot; idazlearekin hitz egiteak, aitzitik, itxaropenak hiltzen dituela sentitzen dut.

### **1988ko urtarrilak 14**

Tabakoa erretzen dutenek ezin izaten diote erretzeari utzi, ezinezkoa zaie. Haien heroiek tabakoa erretzen dute.

### **1988ko urtarrilak 15**

Baloi bat etorri zait hanketara eta jolasean hasi naiz baloiarekin umeen aurrean. Alde egin dudanean konturatu naiz ez dudala erreparatu umeen aurpegietan. Umeak izan dira besterik gabe, ume anonimoak baino ez, berezko nortasunik gabeak. Eta hori ez dagoela ondo iruditzen zait orain. Traizioa izan da neure haurtzaroarekiko.

## 1988ko urtarrilak 17

Idazleak literaturari eskutik eusten dio, hirira lehen aldiz joandako herri txikiko mutil koxkorrak amari eusten dion bezala. Eta amaren eskuak darama zebrabidean aurrera semaforoa berde jartzen denean. (Ikus 1987-XII-10 eta gainerakoak.)

\* \* \*

### Errealitatea

- Ez nauk aspaldian egon errealitatearekin –esan dit O.-k.
- Eta ez diok idatzi ere egiten, edo telefonoz deitzen? –galdetu diot.
- Ez, baina baduk, bai, norbait aspaldi honetan nire etxera maiz deitzen duena.
- Errealitatea izango duk agian.
- Ez nagoela esango zioat ba, inoiz harrapatzen banau.

## 1988ko urtarrilak 20

### Etorri

Nahi dunanean etorri.  
Itsasoari begira egongo naun,  
begiak ortzaizean galduta,  
eta kontatzeko istorio bat  
izango dudala agintzen dinat,  
tristeia seguru askorik.

## 1988ko urtarrilak 24

Nik sinpatia badut, izan, eta erabili ere egiten dut maiz, baina faltsua iruditzen zait batzuetan, eta lotsagarria beti.

\* \* \*

Beste inork idatziko ez lukeena idazteko gaitasuna dudala uste dut. Eta hala uste izateari utziko banio beste planteamendu bat izango nuke idazterakoan, zeharo utzi agian egingo ez banio ere. (Ikus 1988-I-17 eta gainerakoak.)

\* \* \*

Nire polizia neure irakurlea da, balizko irakurle hutsik gabeko eta ezezagun aratz hori, nire nagusi zorrotza, nire Jainko meneratzailea, ni baitan bizi dena. (Ikus 1988-I-24-b eta gainerakoak.)

## 1988ko urtarrilak 29

### Robot perplexoa

Mutil gazte bat izan dut gaur, ea gezurra zer den galdezka. Nik programatutako definizioa eman diot baina gaztea ez zen konforme. Zentzuzko loturarik ezin atzeman

izan diedan azalpenak eman dizkit, eta nik gaiari buruz nekiena esan diot. Nik gezurraren definizioa jakin badakidala, alegia, baina gainerakoan gezurra ezezaguna zaidala. Nik baiezkoak ezagutu eta erabiltzen ditudala, eta ezezkoak eta ezjakinak, askoak eta gutxiak, luze-motz, zabal-estu, lodi-mehe eta garai-behereak, koloreak eta tonuak, neurriak, zenbakiak, mailaketak eta portzentaiak; baina gezurrik inoiz ez darabidala. Gazteak, haatik, egoskor, azkenean mezu bat grabatu dit, zentzuzko loturarik ezin atzeman diedan hitzek osatutako perpaus desegokia: “Egia gezur handi bat da eta gezurra egia handi eta bakarra.” Triste joan da.

### **1988ko otsailak 23**

Orain dela urte batzuk uste nuen literaturak ez zuela ez historiari ez hizkuntzarik, gordina zela erabat. Eta gizakiak ez zuela sustrairik, loturarik gabe zegoela kalean bere bost zentzumenak aske eta biluzik zituela. Aitortu beharko dut, neure harrotasun primitiboa urratuagatik ere, oker ote nintzeneko susmoa izaten hasia naizela.

### **1988ko martxoak 4**

Bizantziotik Bizantziora hustasun handi baten tristura noraezean paseatzen duen sofista naizela esatea ere...

### **1988ko martxoak 15**

Zuhaitz ihar bat adreilu puska kolorez inguratutako lur eremu eskas narratsean sartua, egunero hiriaren zaratak, hautsak, keak eta umore txarra jasaten. Horrelako zuhaitza dut nik etxe atarian, neuk aukeratutako etxearen atarian. Eta logikoa da gainera, normala. Zer egon daiteke, beraz, giza-buruan ezin sar daitekeenik?

### **1988ko martxoak 16**

Munduko literaturarik onena ari naiz idazten eta inor ez da ohartzen. (Ikus 1988-I-24-c eta gainerakoak.)

\* \* \*

Eskuari paper zuria eskaini eta utzi mugaturiko erresuma horretan errege izaten, marrak egin eta noranahi abiarazten. Errepara diezaiozun. Kasu honetan malenkonia nagusitzen zaio eskuari eta malenkoniak osatzen dira erresuma honetako marra libreak. Malenkoniak makal mugitzen ditu marrak, geldo-geldo, eta marraren norabideak axola handirik ez duela nabari da giro orokorrean; hala sentitzen da. Eskuaren bidaia noraezekoa da eta dena berdin samar ez ote deneko susmoa iradokitzen da.

Gogoeta eginez, gogoetaren bidez, paperetik eskura eta eskutik eskuaren jabea dagoen aldera begira hasita: axola zaiona, benetan axola zaiona erresuma errektangular txiki horretatik kanpo dago, eta horregatik axolagabeziaren eskutik etorri da aukeraren garrantzi faltari lotutako giro malenkoniatsua, horixe da ateratzen dugun ondorioa.

Malenkonia horrekin gustura dagoela ere esan genezake. Benetan axola zaizkion arazoak ez ditu ulertzen, bentzututa sentitzen da, etsi egin du eta orain berdin dela ari da esaten, berdin dela eta berdin delaka mugitzen du eskua paper gain horretan. Eta horrekin gustura sentitzen da, une labur batez badarik ere.



Esanak laburbil ote genitzake orain? Atzekoz aurrera egingo dugu. Axola zaidan arazo batean noraezean, etsita edo etsitzeko gogoz naiz, baina une honetan gustura nabil (hiru) eskua paper zuriaren gainean axolagabe mugitzen dudalarik (bi), axolagabeziari lotutako malenkoniaz noraezeko marrak marrazten makal-makal, geldo-geldo (bat).

Baina, tira, zer axola du horrek? Mozkorrak mozkortuta dagoela esaten duenean bezala, nik ere neurea aitortu egin dut, geroragoan hutsaltasun giro erridikulu bat sorrarazten duen baieztapen sasi-zuritzaille batez. Besterik ez.

\* \* \*

Hurkoaren begien aurrerako, nolako arreta une bakoitzean! Zenbat enkargu, eta a zer erreflexuak, a zer nerbioa une orotan! Dena horren gorabeheran ezarrita. Une oro grabatuko balu bezala hurkoaren begi atsedean gabeak.

\* \* \*

Gauetz, bakarrik neure gelan, porro bat erreta. Gauza asko datozkit burura eta denak jaso nahi nituzke, behar nituzke, gero gau hau kontatu ahal izateko. Gizateriak gau honen berri osoa izan behar baitu, ñabardurarik txikiena ere huts egin gabe. Geroak pena bailuke historia hau galduz gero. Idazlea bere misioa betetzeko ahalegin guztiak egitera behartua dago, inongo mugarik ametitu gabe. (Ikus 1988-II-16-a eta gainerakoak.)

\* \* \*

Oraintxe da aguretutakoan gustura eta nolakoa datekeen ezin azaldu dugun amildegizko hunkidura zorabiagarri batez irakurri ahal izango ditugunak idazteko garaia. Garenaren muinik muinena utzi gordeta orain, aguretutakoan oroimena ahalik eta zoko-mokorik sakonenetara heltzeko gauza izan dadin. Ari al gara horretan behar bezala?

### **1988ko martxoak 17**

Idaztea lan isila da, eta lanean isilean ari den idazleak bere ahotsa entzunarazten laguntza eskasa duela jotzen du. Halako batean kazetari batek elkarrizketa luzea egiten dio bere azken liburua dela eta; gehiegi iruditu eta zama bat pausatzen zaio kontzientzia gainean. Bere ahotsa entzunarazi egin dute, luzaz eta astiro. Eta zer? Huts egin duela sentitu eta bere eguneroko bakardadean lan egitera itzultzen da berriro, han bere burua estimatu egin baitezake betiere, zirkulu literarioan ez bezala. "Hurrengo arte", esaten du amaieran, luzerako agurra egiten duenaren keinuaz lagundurik. Hurrengo liburura arte izango da, gutxienez.

### **1988ko martxoak 19**

Igande eguerdiz, eliz ospakizun baten ondorengo pasean, dotore jantzitako familia bateko amonari atzeratuta datorren norbaiten zain geratzeko esan diote ahaideek. Amona zain geratu da, neuregandik gertu. Zer pentsa dezake amonak zain dagoen une honetan? Zer da une batez zain egotea amonarentzat, gogoetarako arriskuaren beldurra ez bada?

## **1988ko apirilak 1**

Ez dakit nola iritsi naizen honaino. Oharkabean gauzatuz joan da erabakia. Eta orain honela bizi naiz, paper batzuetan idazten ditudan lerro, paragrafo eta testuei lotuta. Nahiz eta hau ere azken-azkenean imitazio ergel eta umiliagarria izan. Imitazio orok bezala, honek ere bere hitz higatua du: literatura. (Ikus 1988-III-16-d eta gainerakoak.)

## **1988ko apirilak 15**

Iritzi guztiak okerrekoak dira, baina beti izaten dira okerreko iritziak izateko arrazoi zuzenak.

\* \* \*

Gai batzuetan –gehienetan esango nuke, denetan ez izatekotan ere– iritzia inperfekzio seinaleztat jotzen dut. Iritziari pertsonak erakustez gerotan lotsaz erakutsi beharko lukeen akats espiritualak deritzot. Iritzia duenak onenak eman ditu, jai du, bereak egin du.

\* \* \*

Idazleekin harremanetan izateak urduritu egiten nau. Ordu isil luzetako neure lana zalantzan jartzen da une batean, eta nik etxe txokoan utziak ditut hura defenditzeko arma guztiak. Ez dut nahi inork neure lana ulertu duela jakiterik, beldurtu egiten nau neure lana inoren hankapean harrapatua ikusteak. Ihes egiteko gogoak datorkit neure lanaz hitz egiten hasten zaizkidanean. (Ikus 1988-III-17.)

## **1988ko apirilak 28**

Ziklista bat helmugarantz estu doa, dituen denak ematen. Irabazi egin behar du eta ezertan erreparatu gabe aurrera doa. Ez da erridikulua sentitzen. Eta areago, erridikulu guztiak atzean uzten ari dela sentitzen du bere pedalkada larriekin. Inoiz agerian eta erridikulu ikusi izan duten guztiak begira ditu bere erridikuluaren zuriketaren lekuko, ziklistaren ahalegin estu-larriaren lekuko oraingoan. Helmugan bekatu guztiak garbituta izango direla sentitzen du, bere burua zuritua izango duela, alegia, ondo baino hobeto zuritua, behin eta betiko ia-ia.

## **1988ko maiatzak 2**

Nire hitzak ez luke dena dagoen bezala utzi behar. Nolanahi ere, dena dagoen bezala utzi arren ere, nik neure hitza ereindako hazia dela sentitzen dut, egun batean loratu eta lurraren kolorea eta are izaera eta ezaugarriak ere aldatuko dituen. Nahiz eta funtsean deus ere ez dudan esaten. Ala bai? Zer esaten dut bada?

## **1988ko maiatzak 16**

Aspertzen ari naiz hainbeste aitorten egitearekin. Beti tonu tristean, beti egoismoa, beti hutsaltasuna, mina, etsipena. Besteri buruz idazteko gogoak ari zaizkit sortzen.

### **1988ko maiatzak 17**

Arazo bati bueltak ematen dizkiot hausnarketan eta ezin inondik inora konpondu. Orduan, arazoa laztandu egiten dut. Konponbide fantasmagorikoak asmatzen ditut, heroikoak ere bai. Ezintasuna sentitzen dut berriz ondoren eta arazoa laztantzen segitzen dut etsipenaren esparru hordigarrian barrena herrestan eramanez. Zoriontsua sentitzen naiz inondik inora, ahalegin guztiak eginagatik ere, ezin konpondu dudan arazoarekin.

### **1988ko ekainak 13**

Auto-stop egiten gizon bibotedun batek ekarri nau etxera. Ustegabeko euriak harrapatu eta bustita nengoen auto-stop egiten, bere auto handi dotorearekin alboan gelditu zaidanean. Gero, bidaiak iraun dituen hogeit hamar minutu eskasetan izan dugun solasaldia aski izan du gizon bat dela erakutsi ahal izateko. Auto handi dotorea ez ezik, lan garrantzitsua ere badu, emaztea eta pare bat seme-alaba edo. Apaltasun zintzo batetik irten gabe mintzatu bada ere, bere hitz egokiei benetako gizonaren harrotasuna zeriela iruditzen zait. Edota agian neuk, bere ondoan eserita, neure buruari euli bustiaren antza hartzen niolako izan da besterik gabe. Izan ote ninteke ni inoiz hura bezalako benetako gizona hala nahi izanez gero?

### **1988ko ekainak 19**

Nik ezin dut ezer ere normal kontatu. Ezin dut ezer ere normal idatzi. Obsesioak tratatzen zaizkit eta dena azken muturreraino eraman behar izaten dut. Obsesioek bultzatzen dute orduan nire literatura, eta baita moldatu ere. Gero, idazkia irakurritakoan, obsesioari merezi zuen astindua eman diodala sentitzen dut. Hark berean dirau baina nire kolpea jaso du behintzat.

### **1988ko uztailak 4**

Aspergarria deritzot hainbat gairi buruz hitz egiteari edo idazteari, astakeria obsesibo bat bene-benetan esan, aldarrikatu, eutsi eta azkenera arte gogor eginez defenditzeko ez bada. Literatur teoriaz esate baterako.

### **1988ko uztailak 14**

Zer esan diezazueket? Nik ezin dut ezer kontatu. Ez dakit bizi izan dudana edota inorengandik jakindakoa kontatzen. Neure iritziak azaltzerik ere apenas dudana, iritzirik ere ez baitut. Hala ere, nola edo hala neure lana horixe da, dudarik gabe, eta gainera batzuetan oso ondo egiten dut. Ez dakit nola moldatzen naizen baina oso idazle ona naiz, harrigarria badirudi ere. Munduko idazlerik onena. Izan ere, pentsatzen hasiz gero, zer egin dezaket nik besterik? Elbarri sentitzen naiz beste edozertarako, honetan naiz bakarrik munduan onena. Kolorerik gabe gainera ordea. (Ikus 1988-IV-1 eta gainerakoak.)

### **1988ko uztailak 17**

Egunak eta egunak etxetik irten gabe igaroz gero, ez naiz dutxatzen, ez naiz garbitzen, ez dut bizarra mozten, edozer moduz jantzita nabil. Hauxe bera nahikoa da adiskideak etsai ere badirela baieztatzeko.

### **1988ko abuztuak 18**

“Mundua behera datorkigu. Hil egin behar dugu laster. Egin dezakegun oro alferrik da, geroak harri koxkor baten neurrikeri ere iristen ez duen un honetan. Zer egin dezakegu? Mozkortu, drogratu, eroarena egin edo –inork umorerik balu– elkarri larrua jo ere... Ni idazten ari naiz, inork inoiz ezin irakurriko duen testua. Orain liburu guztiak galdu egingo dira, idazki guztiak, guzti-guztiak. Ni idazten ari naiz ordea, eztabaida literarioak egiten zireneko garaian agertzen nuen iritzia bermatuz eta baieztatuz.”

### **1988ko abuztuak 21**

Ustegabeko euria hasi dela ikusten dut leihotik zehar. Etxetik irten behar dut, baina aterkia dut. Dena ondo dago, hobeto ezin, baina aspergarria da.

### **1988ko abuztuak 30**

Nik ezin dut jada poesiarik idatzi, eta honezkero nekez idatzi ahal izango dut inoiz poesiarik. Ezin asmatuko nuke non moztu hitz andanaren jariora, non eman aizkorakada egokia poema odolustu gabe.

### **1988ko irailak 8**

Oso zoriontsua sentitzen da bat asko kostatu zaion zerbait burutan atera edota lortu egin duela esateko unea iristen zaionean. Baina asko kostata iristen dira une zoriontsu horiek. (Garestiegiak dira, ezerrentagarriak seguru asko ia beti.)

### **1988ko irailak 11**

Errealitatean egia zinez benetakoa da, logikoki. Bai.

\* \* \*

Idazleak bere testuaren zati bat azpimarratzen du, ideiarene zama guztia zati labur horretan bildu nahian. Bere ustetan hortxe dago dena, munduaren, unibertsoaren erabateko laburpena, behin betikoa. Behintzat azpiko marra trazatzen ari den artean, eta are une horren zorabiotik jaitsi artean ere. (Ikus 1987-IX-1-b.)

### **1988ko irailak 14**

“Mundu oso bat daukat, barruan gordea eta usteltzen ari zaidana. Horregatik naiz idazlea. Neure barruko mundu hori ateratzen dudanean ez da jadanik neurea izango. Beraz, ez iezadazue niri begiratu, ez iezadazue niri errietarik egin.” (Ikus 1987-IX-1-b eta 1988-IX-11-b.)

### **1988ko irailak 21**

Fernando Pessoa: *Livro do Desassossego*. Pentsamendu abstraktuetan barrena lekurik urrunenetaraino iristen den idazleak, ezereza, bakardadea, tristura, malenkonioa, etsipena, bizitzaren iruzurra eta euri grisaren alferrikako metafora azken muturreraino behin eta berriz eramaten dituenak, hiltzen denean, zer egiten du? Idatzitako orrietan utzitako arrasto zehatz hori besterik ez al da geratzen?

## 1988ko abenduak 16

### Mendizalearen gogoeta

Une batzuk izaten dira inoiz jaistaldi sakonekoak. Une horietan atzera begiratu eta ez dugu ezer ikusten, ezer baliagarririk ez behintzat, ezer pozgarririk, ezer ere deus merezi duenik. Zalantzak dena ezetatzen digu, izan garena, egin duguna, eta zalantzaren dardaretatik iheska ezerezean erortzen gara gero horrelakoetan. Gure poz guztiak, gure maitasun guztiak, meritu guztiak, inoiz harrotu gaituzten balentriak, denak hutsak dira. Hutsak dira ahaztuak direlako dagoeneko, ahaztuak dituztelako denek, ahaztuak dituelako hurkoak, hurkoa baita azkenean bizitzaren balioa neurtzeko dugun neurri bakarra. Ahaztuak dira gure izanaren apur ederrak oro eta ezer berririk egiteko ahulegi sentitzen gara, ezgauza. Irribarrea urrunean ageri den mendi tontorra da orduan, itxuraz inoiz ere ezin iritsi ahal izango duguna.

Burura etor dakizkiguke orduan beti gu baino gutxiagotzat izan ditugunak, inoiz gure merituaren laurdenik izan ez dutenak, eta, horrenbestez, ezta merezi ez zuten zorion ordainik ere. Gure parean ikusten ditugu horrelakoetan, geu ere, haien ondoan, lurrean zulo ergelak eginez ari baikara, lurra alferrikako labirinto tenteletan nahasten dabilztan zizareen antza baitugu beste ezerena baino gehiago.

Dagoeneko ohituta gaude ordea, askotan egon izan baikara horrela, eta badakigu azkenean irribarrearen mendi urrun hartaraino igoko garela, gero berriz ere haran bakarti baten sakonera jaitsi eta mendi guztiei urrun irizteko izango bada ere seguru asko. Azkenerako, mendizale trebeak izaten ikasten dugu, etsipenari aurre egin eta aurrera ekiten, nekeak oinazetik gabe pasatzen, arriskuak larritu gabe, gose-egarriak eroapenez, hurrengo irribarrearen mendirako bide beti berrian aurrera etengabe.

Hori guztia denborarekin ikasten da, biziaren biziaz eta ibiliaren ibiliz, sufrituaren sufrituaz. Gazteak gutxi izan ohi dira mendizale trebeak. Arrangura hutsalerako joera erakutsi ohi dute maiz, mendizale batengan beti hain itxura txarra ematen duen joera lotsagarria. Etsipenaren amaraunetan lazkatzeko gutxien behar dutenak ere gazteak izan ohi dira, normala denez. Bide ertzeko amildegiak arriskugarriak dira, tentagarriak, bakarrik doan mendizale nekatu ororentzat, baina are gehiago betiere gaztearentzat.

Haran sakon samar batetik egiten ditut mendizaletasunari buruzko gogoeta hauek. Hurrengo irribarrearen mendirako bidea hartuko dut gogoetak idatzita uti ondoren. Akaso ilundu egingo zait iritsi aurretik, baina hala gertatuz gero ere bihar iritsiko naiz seguru asko. Nolanahi ere den, sakon samarra besterik ez da haran hau eta mendia ez dago benetan oso urruti ere.

Hitz orekatuak idazten ditut gaur mendizalearen adoreari buruz, adorea erakutsi uste dudalarik horretan. Baina ez nuke egia osoa esango ibili beharreko bideei beldurrik ez diedala esango banu. Hitz orekatuak idatzi ditut gaurko honetan, baina badakit ezagutzeko ditudala haran sakonagoak, ezein mendititik urrunago daudenak, ezagutzeko ditudala egun ilunagoak eta baita amildegi latz beldurgarriak ere bide ertzean.

### **1988ko abenduak 26**

“Gau ilun urrun hartan, ez dut gogoan baina ez bide zen izarrik, halako gauak ez luke behintzat izarrik mereziko.”

### **1988ko abenduak 29**

Txotxolokeria ber 2 egin eta literatura deitu zioten. Gero ber 3 egin eta poesia deitu zioten orduan. (Ikus 1988-VII-4.)

### **1989ko urtarrilak 6**

Pixa egitera sartuta, armiarma bat ikusi dut komuneko ontziaren ondoko paretan. Komuneko paper puska bat hartu eskuan, babes gisa edo, eskuarekin harrapatu armiarma eta komuneko zuloan behera bota dut. Pixa egin eta bonbari tira egin diot ondoren. Armiarmak sentitzen duena irudikatzen hasi naiz: neuregandik oso gertu, burmuin ñimiño batean, oinaze latz ikaragarria, izaki batek gordintasun osoan bereganatua, eta neu izan naiz horren eragilea.

### **1989ko urtarrilak 15**

Hogeita bost urterekin hasi naiz bilatzeari uzteko lehen tentazioak izaten. Hala ere oraindik nahiko aise eusten diot aurrerantzeko bideari. Baina alde zaureratik esateko moduan sentitzen naiz bilatzerai utziko diodan unea –urtea– iritsi egingo zaidala noizbait. Seguru asko.

### **1989ko otsailak 26**

Baziren behin Dena Egia Da izeneko ibaia eta Dena Gezurra Da izenekoa. Biak elkartzan diren inguruan eraiki genuen etxea. (Ikus 1988-IV-15 eta 1988-IV-15-b)

\* \* \*

Nire oinetakoak erridikuluak dira. Nire galtzak erridikuluak dira. Nire alkondara, nire betaurrekoak, nire barruko elastikoa, nire galtzerdiak, nire galtzontziloak... Erridikulu nago. Erridikulua da ni hemen egotea. Kontu erridikuluak baino ez ditzaket esan, erridikulua da nire isiltasuna ere. Erridikuluak dira inoiz esan ditudanak oro, erridikuluak dira halaber nire egun isilak. Erridikulua ohar txiki hau koaderno erridikulu honetan, erridikulua honaino, interes erridikulu batek bultzatua, iritsi den irakurlea ere. Erridikulua da azken esaldi hau ere, guztiz erridikulua.

### **1989ko martxoak 2**

Inguratzen gaituen gizarteak, kulturak, munduak irentsi egiten gaitu, jan, bereganatu. Oso gaztea izan behar da guztiz libre izateko, loturarik batere ez sentitzeko. Ustekabean egiten dira gero loturak, norbera konturatu gabe. Zibilizatu egiten da bat gizartearen ohiturak eta funtzionamendua ikasi ahala, berak nahi ez badu ere. Sustraiak sortzen zaizkio bati, hastapeneko askatasun primitiboa ukatzen dioten erroak egiten ditu. Orduan belaunaldi jakin bateko euskalduna da. Ez zuen uste inoiz halakorik izatera iritsiko zenik, baina orain egina dago, ez du erremediorik. Harrapatua dago definizio zital horretan. (Ikus 1988-II-23.)

### **1989ko martxoak 17**

Zenbat kontu txiki dituen gure eguneroko bizimoduak halako harridura bitxia sortuko luketenak inoiz gure aurreko aitona-amonak zaharrei zein gure ondorengo bilobatxo oraindik jaio gabeen gaur ikusten eta bizitzen ditugun bezalaxe kontatuko bagenizkie!

## **1989ko martxoak 22**

Idazlea nekatu egiten da topikoetatik ihesi. Topikoak jazartzaile egoskorrak dira. Ustekabean harrapatuta egin dakieke ihes topikoei, eta gogor jo behar da orduan ahalik eta urrutien iritsi ahal izateko. Laster topikoa konturatu egingo baita eta indar handia eta ahalegin larria beharko ditu orduan idazleak ihesaldiari eusteko. Txirrindulariak tropelarekin duen harremanaren antzekoa da: idazlea nekatu egiten da topikoetatik iheska, txirrindularia tropelaren aurretik dabilenean nekatzen den bezala. Topikoetatik ihes egiten duen liburuak, jakina, idazlea leher eginda uzten du.

## **1989ko martxoak 23**

Koaderno honetan zehar maiz esan izan dut munduko idazlerik onena naizela, inork idazten ez duena idazten dudala inork ez bezala... (ikus 1988-VII-14 eta gainerakoak). Orain ez dut hain era bortitzean bizi apartekotasun sentimendu edo irudipen hori. Arruntagotzat jotzen dut neure burua, neurri handi batean. Zenbait idazleren aurrean eskas samar sentitzen ditut neure obratxo kaxkarrak. Apaltasuna erakutsi beharra dut, erridikulu barregarriaren beldur. Baina berez, idazlerik onena nintzela esaten nuenean ere, zer esaten ari nintzen ni benetan? Mundu oso bat neukan orduan ere, barruan gordea eta usteltzen ari zitzaidana. Horregatik idazten nituen kontu haiek. Neure barruko mundu hori atera nuenean ez zen jadanik neurea. Beraz, ez zenidaten niri begiratu behar, ez zenidaten niri errietarik egin behar. (Ikus 1988-IX-14 eta gainerakoak.)

\* \* \*

## **1989ko martxoak 23**

Autobidean, pago enbor ederrez zamatutako kamioi atoidun handia. Kontrako norabidean, pago enbor ederrez zamatutako beste kamioi atoidun handi bat. Argiekin keinu egin eta beso bana altxatu dute txoferrek elkarri diosala egiteko. Zertan ari gara? (Ikus 1988-III-15.)

\* \* \*

Autobusa autobideko bidesaria ordaintzeko gelditu da. Kontrako norabidean doazen txoferrek autoa gelditu, ordaindu, papera jaso eta bidean aurrera jotzen dute berriro. Autobusaren leihatilatik ikusten ditut. Oso harro dirudite nik egiten ez dakidan gauza bat ziurtasunez eta trebetasunez egiten. (Ikus 1988-VI-13.)

## **1989ko martxoak 24**

“Agur, bakardadearen artista, beste bat arte akaso. Lagunak egin ditiat. Bakarrik utziko haut.”

## **1989ko apirilak 6**

Hamahiru egun pasa ditut koaderno honetan ezer ere idatzi gabe. Ez al da ederra izan isilune hau? Hori ere ez al da literatura izan?



## **1989ko apirilak 21**

Trean bakarrik noa gaez herri batetik bestera. Gaztetxo batzuk helduak dira beren geltokira. Pozik daude txartelik gabe igo eta beren ibilaldi laburrean zehar txartel zulatzailea azaldu ez zaielako. Pozik jaisten dira trenetik, elkarren artean txartel zulatzaileari egindako adar jotzea ospatuz, eguneroko adar jotze hori, neuri une honetan –oroiminaren indarrez agian– samurra iruditzen zaidan adar jotze apal hori.

Gaztetxoak ziren, neu baino nahiko gazteagoak. Nik ez dut dagoeneko horretarako adinik, ezta auto-stop egiteko ere, trean ibiltzeko ere ez ia-ia.

Txartel zulatzaileari tristura berezi batez eman diot txartela neure parera iritsi denean.

## **1989ko apirilak 22**

Bada bizitzeko era bat, gure gizartean gaur egun ezinezkoa ere ez dena nahiz eta zaila bai izan gutxienez, bizitzeko era bat izarretatik zintzilik bizitzea bezalakoa dena, planik gabe, erlojurik gabe, etorkizunik gabe, loturarik gabe, mugagabe sentituz, munduari begira, mundutik kanpo, aparte.

Akaso ez naiz neu ere horrela bizitzeko gauza, baina bizitzeko era bat da hori ere, tarteka-tarteka liluratu egiten nauena.

## **1989ko apirilak 28**

Egunero egunkaria irakurri behar munduak oraindik behin betiko ihesik ez digula egin sinesteko; atzeraturik gabiltzan arren, aurrealdetik urrun akaso, oraindik ere ez garela erabat galdu, alegia. Baina gero eta egunkari gehiago daude, gero eta gehiago irakurri behar da egunkari bakoitzean, eta gero eta nekatuago eta ahulago gaude. Gero eta nazka handiagoa diogu egunkariari eta bere barruko nahasketa amaigabeari.

## **1989ko maiatzak 4**

Bidean autoak ikusten ditugu etengabe, abiadura handian iragaten. Inork ere ezin dezake jakin nora doazen guztiak, zein diren autoetan doazenak, zein diren beren kezkak, beren nahiak, helburuak, helmugak, zerk mugitzen dituen. Iragaten uzten ditugu, jaramonik egin gabe, eta egunkaria irakurtzen geratzen gara lasai, istripuen aipamenean bitartez ezagutuz denak banan-banan, presarik gabe.

## **1989ko maiatzak 5**

Ez dago behin betiko mezu bakarrik, idazten hasi nintzenean ideia hau neuregandik gertu izan banuen ere beti, agian artista gazte samar guztien joera delako okerreko irudipen horri heltzea. Ez dago erabateko jarrerarik munduaren aurrean, ez dago munduari mezu bakar bat eskaini eta beti horrexekin ekiterik bizitzaren bideetan barrena. Gizaki batek adieraz ditzakeen kontuak infinituak dira. Etengabe jardun beharra dago munduari begira zein norberaren barnealdeari begira, eta etengabe aztertu beharra alderdi ezberdin ugariak. Norberaren definizioa ez dago keinu bakar batean, esaldi labur batean, ezta film batean edo liburu batean ere. Etengabe aritu behar da, heriotza beste amaierarik ezin izango duen lanean.

### **1989ko maiatzak 18**

Hasieran obretan bertan aurkitzen nuen lilura mugagabea. Gero egintzan bertan, lanean, artean eta artearen garapenean. Orain lilura mugak izaten hasia ez ote den dut susmoa dagoeneko.

### **1989ko maiatzak 26**

Bizi da oraindik ere idazlea ni baitan. Bere isiltasunean ezkutatua mugarik gabeko soro amaigabeak begiztatuz bizi bide da aspaldi honetan. Isilik dabil, isilik dago, inguruko zaratek beldurtua agian, denak isildu zain akaso hizketan lasai eta gozo hasteko.

Bizi da, bai, oraindik ere idazlea ni baitan. Gaina hartzen dit oraintxe bertan, nitaz jabetzen da, une labur bateko isiltasun apal honetan, oraindik ere ni baitan bizi dela erakutsiz, geroragoko isilune luzeago baten zain. Bisitalege laburra egitera etorri zait lagunik minena, eta halako batean berriro elkar ikusi eta elkarrekin biziko garela esatera, ez larritzeko, pozik bizitzen saiatzeko bitartean. Eta ederki ari da mintzatzan, berak bakarrik dakien moduan, bere isiltasun aratzera itzuli aurretik. Ba al da norberaren baitako idazlea baino maitagarriagorik?

(Ikus 1989-I-15.)

### **1989ko ekainak 6**

Gure bizitza film bat da, baina luzeegia, ebakirik gabekoa, muntaiarik gabekoa. Ordu eta erdi edo bi orduko muntaia eginez gero, eszena gutxi izango lirateke aukeratuak. Une batzuetan, hala ere, aukeratua izateko moduko eszena bizitzen ari naizela iruditzen zait; eta une horietan oso pozik sentitzen naiz, aktore lana ederki egiten ari naizela jabetuta, eszena bikaina grabatzen ari naizela edo ari garela iritzita. Orduan badirudi horixe dela bizitzarekin egin daitekeen gauzarik ederrena, orduan badirudi horixe dela dena, ez dagoela besterik, bizitzak zentzurik izatez gerotan horrexek behar duela izan bizitzaren zentzua. Nahiz eta inork ere ez duen inoiz filma ikusiko, muntaia ere ez baitu inork egingo, irudiak grabatzen ere ez baita inor ari. Ez guk dakigula behintzat.

### **1989ko uztailak 1**

Egia da, gaur garbi ikusi dut: fantasma hutsa badirudi ere, etsipena mehatxuka ari zaio hurbiltzen neure literaturari diodan fedeari, benetan, arriskua sumatzen hasteko moduan. Oraindik ere puska baterako izango dut, hori segurua, baina halako batean fedea erabat galdu eta munduan literaturak eskaintzen didan laguntzarik eta babesik gabe bizi behar izatea ere litekeena dela sinesten eta ametitzen hasia naiz. (Ikus 1989-I-15 eta 1989-V-26.)

### **1989ko uztailak 5**

Behin eta berriz sortzen diren eztabaida eta haserrebidak, guztiz tipifikaturik daudenak –nagusiaren eta morroiaren artekoak, saltzailearen eta eroslearen artekoak, poliziarren eta gaizkilearen artekoak...–, mila bider errepikatzen dira behin eta berriz, etengabe ageri zaizkigu temati gure begi nazkatuen aurrean, konponbiderik ez dutela erakutsiz, justizia neutralik ez dagoela, arrazoiaren jabe bakarrik ez dagoela, haserre

hitzak jan eta isiltzea dela bide duin, dotore eta jainkotiar bakarra, eztabaidaren bideak erabat puskatu eta itxuratxarki urratzeraino baititu zapalduak giza-miseriarik makurrenak. (Ikus 1989-II-26 eta gainerakoak.)

### **1989ko uztailak 17**

Egunkaria bezalakoa izan nahi nuke. Toki guztietan izan, dena garaiz jaso, testu eta argazki, beti gazte iraun, egunero sasoi onean, ezeri ihes egiten utzi gabe.

### **1989ko uztailak 25**

Umezaroa eta nerabezaroa, niretzat, neuk esan behar banu, garai ankerrak dira, zalantzak eta segurtasun ezak markatuak, beldurrez bizitakoak. Munduari nerabeak ez dio jakin-min pozgarri eta osasungarriz begiratzen, ikasteko premiak eraginda baizik. Mundura irten eta munduari begiratzea zalantzez eta beldurrez betetzen den eginbeharra da, eginbehar beldurgarria. Baina, dudarik gabe, neure umezaroaz eta neure nerabezaroaz ari naiz, eta horrelakorik ez diot inori ere opa.

### **1989ko uztailak 26**

Helmugara bakarrik eta irabazle iristen den txirrindulariak pedalei eragiteari utzi eta besoak altxatzeko astia izan ohi du, bere garaipena estuasunik gabe ospatzeko aukera. Egin beharreko guztia egina du, garaipena ziurtatua. Inbidiaz begiratzen diet telebistan edota egunkariko argazkietan txirrindulari horiei. Neure bizimoduan horrelako uneak izan nahi nituzke, horrelako uneen bila nabil, baina berez bizitzan ezinezkoa da, ezinezkoa zait helmugara bakarrik eta irabazle iristen diren txirrindulariak imitatzea. Ezinezkoa zait horren era lotsagabean murgiltzea garaipenaren ez tizan, ezinezkoa baitzait garaipena garaipen gisa sinetsi eta tratatzea ere.

Txirrindulari batek helmugara bakarrik eta irabazle iritsi, pedalei eragiteari utzi eta besoak altxatzen dituenean, inbidiaz begiratzen diot, helmuga zeharkatu, kazetarien eskuetan erori eta bizikletatik eraisten duten arte. Orduan bereak egin du; amaitu da garaipena, eta hutsaltasunaren tenorea heldu da gogoetaren eskutik.

### **1989ko uztailak 29**

Behin, koaderno honi hasiera ematen ari nintzaionik jakin gabe, ene literatura munduaren kontrako kolpean isurtzen zaidan odola baino ez dela idatzi nuen (1984-1). Orain dagoeneko hobeto prestatua nago munduaren kontrako hainbeste kolpe ez izateko, eta kolperik jasotzez gerotan ere ia inoiz odolik galdu gabe jasotzeko. Suertatu zaidan mundura egin naiz, pixkana-pixkanaka, absurdura ohituz, onartu ezinezkoak ametituz, bestek erabaki eta ezarritakoak neure eginez ezinbestean, logika prefabrikatuak kontsumituz. Heldu egin naiz eta epeldu, oreka irabazi eta utopia galdu, besteren munduaren truke neureak saldu.

Horrenbestez, nire idazteko premiak ez bide dira horren larriak gaur egun, askoz ere odol gutxiago isurtzen dudanez gero munduaren kontrako kolpean. Baina hain estu lotuta sentitu izan naiz literaturarekin, hain neurea izan dut literatura, hain bakarrik sentituko nintzateke munduan literaturarik gabe, hain hutsal, hain alferrikako, hain-hain bakarrik benetan...

Orain ezin izango naiz munduko idazlerik onena (ikus 1989-III-23 eta gainerakoak), baina idazten segituko dut, lerro bakoitzak egun bat gehiago salbatzen

didala sentituz, oraindik ere, eta honezkero betiko, dena posible dela sinetsiz, letren konbinaketa libre eta infinituari behintzat fede izanez. Gainera, lehen adina odolik isuriarazten ez badit ere, mundua beti kolpea baita, literaturaren motor etengabea.

(Ikus 1989-I-15, 1989-V-26 eta 1989-VII-1.)

### **1989ko abuztuak 10**

Bizitza osoan zehar benetan egindako irribarre pozgarri guztietan, unean uneko zorionak baino poz handiagoa eman izan dit beti zorion horri loturiko gerorako itxaropenak, nahiz eta unean uneko zoriona bera ere alde aurretiko itxaropen baten gauzatzea izan maiz askotan. Beraz, itxaropena izan dut beti neure pozkarioaren oinarririk sendoena, ia-ia ezinbestekoa; etorkizunari begira poztu izan naiz beti orainaldiko unearen gozamen zuzenean baino gehiago. “Ilusio eta itxaropen hutsalen katean pozik bizi gara tarteka.”

### **1989ko abuztuak 11**

Batzuetan inbidia izaten diet zoroiei. Zoroek ez dute erantzukizunik. Utzita dute erabat beren buruen gobernuak, beren norabidearen lema. Bost piper axola zaie dena. Etsita bizi dira, ezeren kezkarik gabe. Tarteka era horretan etsitzeko gogoak izaten ditut.

Agian ez da ezinezkoa bizimodu honi oreka bat aurkitu eta lasai bizitzea, inoiz ere zoroekiko inbidiarik sentitu gabe. Erreka garbi baten iragatearen antzekoa litzateke bizimodu orekatu hori, izadiarekin bat egina eta kultura jakin bateko arauen barruan txertatua, eguneroko bizitze hutsari lotuta besterik gabe, izate hutsari.

Bada oraindik horrela bizi denik ere, baina nik –edo guk– ezinezkoa dut –dugu– horrela bizitzea. Behin era honetako gogoetearaino iritsi denak ez du atzera egiterik.

### **1989ko abuztuak 24**

Arazo eta gatazka politikoetan sentimenduek agintzen dute maiz askotan arrazoi politikoaren gaindi. Ezinbestekoa da. Futbol partidetan dudazko jokaldia izaten denean talde bietako zaletuek nork berearen alde erabaki nahi izaten dute auzia. Antzeko kontua gertatzen da gatazka politikoekin. Kontua ez da izaten funtsean arrazoa noren alde dagoen erabakitzea. Kontua da norengandik sentitzen garen gertuago. Agintariengandik eta aberatsengandik gertuago sentitzen dena nekez izango da anarkista, eta miseria gorrian bizi denak nekez egingo du agintarien eta aberatsen alde... Gainera, salbuespenik gehienak –futbol partidetan bezala– saldukeriatzat hartzen dira, saldukeria gisa sentitzen dira ezinbestean, traizio koldar moduan.

### **1989ko abuztuak 25**

Bada benetan jende jator eta argia munduan. Batzuetan, ordea, min egiten dit horrelakoak ezagutzeak eta horrelakoekin tratatzeak. Jende jatorraren ondoan neure egoismo lotsagarria agerian jartzeko beldurrez naiz beti. Jende ziztrin zikoitzez inguratuta lasaiago sentitzen naiz. Honetan ere neurria harrapatzea izango da kontua, jakina.

\* \* \*

Literatur Kongresuan:

–Idaztea trapezioan ibiltzea bezalakoa da, edota soka mehe baten gainean airean  
–esan zuen Mendebaldeko idazle ospetsu batek.

–Bai, baina behean sarea ezarrita betiere –gaineratu nuen neuk, eszeptikoa izan  
nahi zuen irribarre ergel batez.

–Ez pentsa beti hala izaten denik –zehaztu zuen orduan herri txiro eta zapaldu  
bateko idazle txiki batek, eta adibideak ematen hasi zitzaidan izen zerrenda luzean,  
ezezagun ugari tartean.

### **1989ko irailak 6**

Erridikulua. Erridikulua berriz ere ispilu aurrean neure burua irribarrez.  
Erridikulua. Erridikulu izan, erridikulu sentitu, erridikuluan bizi. Erridikulu eta  
barregarri edonoren aurrean, noiznahi, beti. Erridikulua izateari utzi nahi eta ezin.  
Hogeita lau ordu egunero erridikulu izateari uzteko eta hala ere ezin ezer egin. Pessok  
edo Kafkak bezala salbatu nahi erridikulua, baina horretan ere ezin inola asmatu. Kontu  
erridikuluak idatzi desordu erridikuluetan, koaderno erridikulua bete marra erridikuluz,  
erridikulua egin behin eta berriz literaturaren izenean. Erridikulua! (Ikus 1989-II-26-b.)

### **1989ko irailak 17**

“Nire bakardadea kartzela handia da, askatasunez betea.”

### **1989ko irailak 21**

Hasieran, gaztetan edo, badirudi abangoardia, esperimentazioa, bide berrien  
bilaketa, amaierarik gabeko bidaia liluragarria dela; ezagutzen dugun ororen gainetik  
dagoela uste izaten da norberak eriden eta bere egin behar duen misterio ezezaguna. Eta  
berez zuzena da ikuspegi hori, halaxe da izan ere. Baina kontua da gero bidaia amaigabe  
eta liluragarri horren gorabeheretan nekatu egiten dela bat, bidaiaren bakardade  
ezinbestekoan tristatu, erreferentzia ezagunen faltan arrotz sentitu eta galdu. Gainera,  
konturatu egiten da bat bidaia amaigabe horrek ez daramala berez inora, bideak ez duela  
aurrerantz egiten, baizik eta inguru arrotzetan dabilela bueltaka noraezean. Horrela  
urratu ohi dira gazte abangoardista berrizaleen ametsak, eta horrela iristen da apurka-  
apurka bide ezagunago, arruntago eta klasikoagoetarako itzulera, noraezeko bidaia  
esperimentalean ikasitakoak ahaztu gabe bada ere, noski. Berez neure buruaz ari naiz  
bakarrik, baina joera orokorra ere ez ote den pentsatzen dut. Berez literaturaz eta arteaz  
ari naiz bakarrik, baina bizitzaren beste arlo askotan ere horrelaxe ez ote den pentsatzen  
dut.

### **1989ko irailak 24**

Lizardik Donostiatik Bilbora autobidean zehar doan autobusean bidaiatuko balu,  
leihatila ondoan eserita parajeei begira, esango luke ba hark ere zer edo zer, alajaina!

### **1989ko urriak 2**

Garai batean irakurleak amildegi ertzera bultzatu nahi nituen, bizimodu honen  
absurduaren mugaraino eraman, era horretan egoeraren absurdu horretaz jabetu eta  
agian beren jokaera ere alda lezaketelakoan, beren kateak apurtu behingoan. Ez zen hori  
ere xede nagusia beharbada, baina horretarako itxaropen ezkutu bat gordetzen nuen beti.

Orain, ordea, ez dut horrelako itxaropenik eta, areago, okerrago, neuk ere ez diot kasurik egiten neure mezu zahar zintzoei, nahiz eta ukatu ere ez ditudan egiten, nahiz eta oraindik ere batzuetan sinesgarri eta benetako irizten diedan; neuk ere ez dut neure jokaera gero eta integratuagoa eta arruntagoa aldatzen, neuk ere ez ditut neure kate gero eta ugariagoak eta motzagoak apurtzen, nahiz eta oraindik ere batzuetan absurduaren amildegi ertzaren lilura sentitu. Lilura hori ez da beharbada burges txiki baten jolas eroso basterik, batere arriskurik gabea, noski, eta halaxe aitortzen dut garbi-garbi gaur egun.

\* \* \*

Hitzen bidezko adierazpena metafora da. Eta literatura metaforaren metafora, metametafora. Eta metaliteratura...

### **1989ko urriak 6**

Hedabideek gezurra moldatzen dute, egia oinarritzat hartuta. Idazleak, gezurra oinarritzat hartuta, egia bilatzen du.

### **1989ko urriak 13**

Beti tabernazulo berean sartuta dagoenak indartu egiten ditu bere printzipioak eta bere iritziak. Askotariko liburuak irakurri, askotariko filmak ikusi eta batetik bestera dabilena, aitzitik, ezertarako iritzirik gabe gelditzen da azkenerako. Zer ote da hobe? Ez dakit. (Ikus 1989-VII-5 eta gainerakoak.)

### **1989ko urriak 18**

Ez diot beldurrik zahartzen hasteari. Zahartutakoan, gazte izan beharrik ez.

### **1989ko urriak 29**

Zer galtza mota jantziko ote dugu guk, modari kasu handirik egiten ez diogunok, hogeit hamar urte barru? Ez nuke inola ere asmatuko, baina gogoeta ugari egiteko bidea iruditzen zait galdera txolin hau.

### **1989ko azaroak 4**

Hiri batetik bestera trenean, lanbro mehearen estalpe amultsuan ikusten diren herri txikiei begira, baserri atarrietako zokoak, zelai hezeak, bidezidor mehar bihurriak, baso ilunak, sasiarte beltzak kristal lausotuaren bestaldetik... Hiriko geltokira iritsitakoan erloju handi bat dugu zain. Haurtzaroa aspaldi amaitu zen.

### **1989ko azaroak 7**

Ez gara jainkoak. Ezin gara debalde bizi, salerosketa eta truke orori arbuigarri iritzi arren.

### **1989ko azaroak 12**

Tristea da hazi eta heltzea. Poesia txarrari antzematen hastea, norberarena ere gutxietsiz.

### **1989ko azaroak 17**

Aireportuko itxarongelan biltzen diren exekutibo dotore hauek guztiek gogoan izaten ote dute inoiz nork bere baserrian txikitan edo koxkortu berritan hainbat eta hainbat urtez erabili zuten jertse zahar hura, amonak egina? Eta neuk, zergatik aipatu dut baserria, zergatik jertsea, zergatik amona? Zergatik gaur eta hemen, exekutiboz betetako aireportuko itxarongela honetan?

### **1989ko azaroak 19**

Garaiak eta inguruak moldatzen gaitu neurri handi batean, egia da, ez da dudarik; lehen horrelakorik sinetsi nahi ez izan arren, gaur egun ongi ulertua eta onartua dut hori. Baina hala ere beti geratzen da moldapen horretatik kanpoko geure izaera ezagutzeko gogo. Ingurutik independentea litzatekeen geure nortasunaren harrotasuna gorde nahia, inoiz edo behin askatasun primitiboa deitu izan dudan hori berreskuratu eta erabiltzeko gogo bortitza. (Ikus 1988-II-23 eta 1989-III-2.)

\* \* \*

Literatur kongresu batean bi egun. Nola azaldu sentitzen dudan lotsa, nola adierazi kontzientzia ez dudala lasai, txoropito tontolapiko baten antza hartzen diodala neure buruari? Zergatik ez da inoiz horrelakorik aipatzen literatur kongresuetan? Idazle jendearekin bildu eta jendaurrean idazle gisa azaltzeak indarra kentzen didala sentitzen dut, sormenerako grina itzali egiten dela idazletzat hartua naizen heinean. Izan ere, ez al da ba isiltasuna abiapunturik egokiena edozein idazlanentzat? (Ikus 1988-IV-15-c.)

### **1989ko abenduak 1**

Agian inoiz ez diot utziko idazteari. Beti geratzen baita sentimendu berezia, ideia berria, norberaren distira ortzaize mugagabearen urruntasunean galdua, beti behar izaten baita leiho bat noiznahi zabaltzeko modukoa, beti baita pozgarria bainuetxeak ere badirela jakitea, elkarre humanitarioak, erlijio abegikorrek, zubipeko aterpeak, goizaldera arte ixten ez diren tabernak, zoroetxeak... Besterik ez balitz ere, literatur kondar zaharrak, urteen joanean ene baitari estu atxiki zaizkionak. (Ikus 1989-VII-29 eta gainerakoak.)

### **1989ko abenduak 3**

Batzuetan berak egindako lan guztia zentzurik gabekoa agiri zaio artistari, eta soilik bere lanari esker eskuratutako diruak zaizkio orduan kontsolagarri, bere artearen balioak duen neurri bakarra horixe baita etsipenezko une ilun horietan.